

Donostian, 2020 apirilaren 24an

COVID-19AREN ONDORIOAK ARINTZEKO NEURRIAK AZERTU ETA EZARTZEKO BATZORDE EZ-IRAUNKOR BAT SORTZEKO PROPOSAMENA

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Araneta Zinkunegik, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90., 91. eta 148. artikuluen arabera, batzorde ez-iraunkor bat sortzea proposatzen dut, COVID 19ak eragindako pandemiaren ondorioak arintzeko neurriak azertu eta, ondoren, abian jartzeko.

COVID-19aren pandemiak ez da ondorio suntsitzaileak izaten, soilik, osasun eragineko biztanleriarengan, alegia, familiakoak hiltzea eta are osasun fisikoa eta mentala galtzea ere. Batez ere, egoera eta konfinamendu beharra direla eta, jarduera ekonomiko asko gelditu egin dira, eta herritar askori eta askori kalte egin diete, bai lanaren bai ekonomiaren aldetik. Horrek, zalantzarik gabe, arriskuan jartzen ditu pertsona asko, eta hipoteka, alokairu, faktura eta abar ordaintzen jarraitu behar dute. Madrilgo Gobernuak kaleratzerik gerta ez dadin eta jarduerak gelditzeak langileengan eraginik izan ez dezan hartu dituen neurriak gorabehera, irregulartasun ugari izaten ari dira lan eskubideen arloan.

Familiak eta pertsonak babesteko beharra, lanean eta ekonomian, eta, gainera, gaixotasun horri aurre egiteko neurriek Donostiako sektore ekonomikoetan (merkataritza txikia, ostalaritza, etab.) duten eragina ahalik eta gehien ezagutzeko beharra, behar-beharrezkoa da batzorde bat sortzea, garatu beharreko neurri eta ekintza zehatzak aztertzeko, Donostian arazo larririk gerta ez dadin, desoreka sozial edo ekonomiko handiagoak sortu bailitzakete.

Ekintza zehatzak garatzeko neurriak azertu eta akordio prozesua garatzeko, ezinbestekoa da aldian-aldian elkartzea, informazioa partekatzeko eta herritar guztientzat egokienak diren planteamenduak

eztabaidatzeko. Horregatik guztiagatik, **Elkarrekin Donostia** udal taldeak aurkeztu du **BATZORDE EZ-IRAUNKOR** bat **SORTZEKO PROPOSAMEN** hau, **COVID-19AREN ONDORIOAK ARINTZEKO NEURRIAK AZTERTU ETA EZARTZEKO**:

- **Helburua**: COVID-19ak Donostian sortzen dituen ondorioak arintzeko behar diren neurriak eta jarduketak aztertzea.

- **Kideak**: Udal talde bakoitzeko kide bat.

- **Iraupena**: 18 hilabete, edo COVID-19aren inpaktuak eragin dituen ondorio larrienak leundu arte.

- **Bilera maiztasuna**: Hilean bitan, gutxienez.

Sinatua: Aitzole Araneta,

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea.